Erakusketa Zin Ex. Gorputza eta arkitektura. Tabakalerako erakusketa-aretoa

# Artea eta zinema ardatz Tabakalerako ‘Zin Ex. Gorputza eta arkitektura’ erakusketan

SERGIO BASURKO

Berriki igaro dugun pandemiaren eta konfinamendu- eta isolamendu-esperientziaren ondorioz, komunikazioa bitarteko digitalen menpe geratu da. Horri erantzuteko, ‘Zin Ex. Gorputza eta arkitektura’ erakusketak aztergai ditu gorputzaren, teknologiaren eta ingurune eraiki eta naturalaren arteko harreman fisikoak. 1960ko hamarkadaren amaierako eta 1970eko hamarkadako zinema eta arte feministak, zinema klasikoaren espaziotik ateratzeaz gain, gorputzaren irudia objektibaziotik askatu zuten, eta errealitatearekin kontaktuan jarri. Clara Montero Tabakalerako kultur zuzendariak arestian azaldu duenez: “Gorputzaren eta espazioaren arteko harremanetan zentratzen da, ikuspegi kritiko eta feminista batetik”.

Aretora sartzean, instalazio batek egiten du harrera; Discoteca Flaming Star taldearen proposamenaren ardatza gorputzaren eta teknologiaren arteko harremana da, eta bideo lanak eta collageak uztartzen ditu. Eskuinera eginda, Ana Mendietaren hiru bideo daude. Katja Davarren hiru margolan zuri-beltz eta bideo lan bat, Rory Pilgrimen instalazio bat, Haus-Rucker-Co taldearen obren lagin bat, Sohrab Hura argazkilariaren film labur bat, eta Dora Maurerren zuri-beltzeko bideo bat datoz jarraian, besteak beste. Eta, amaieran, Sergio Pregoren instalazio bat paratu dute: Miguel de Prada Poole arkitektoaren hainbat irudi erakusten ditu, pantaila puzgarri batean proiektaturik.

*Zin Ex* proiektuaren bigarren edizioa den honek, gainera, zuzeneko performanceak, proiekzioak eta solasaldiak hartuko ditu erakusketa-aretoan bertan. Erakusketak tresna zinematografikoak erabiltzen dituzten arte garaikideko praktika ezberdinak biltzen ditu. Horien artean daude pantailan ikus daitezkeen dokumental antzeztuak, erdi-fikziozko narratiba, musika eta dantza.

Finean, ‘Zin Ex. Gorputza eta arkitektura’ erakusketak 30 bat artistaren film, instalazio, argazki, eskultura eta marrazkiak biltzen ditu, eta gorputzaren, espazioaren, naturaren, teknologiaren, generoaren eta arrazaren arteko harremanetan arakatzen du. Erakusketa 2022ko urtarrilera bitarte egongo da ikusgai, Tabakaleran.



MONTSE CASTILLO

Erakusketak zur eta lur uzten du bisitaria, era askotako eragin bisualak nonahitik datozkiola.

Exposición Chris Kraus, películas antes y después. Lau Pareta

# Chris Kraus, del cine a la literatura, y viceversa

EFRAÍN BEDOYA SCHWARTZ

Con el nombre ‘Chris Kraus, películas antes y después’ se presenta en la sala Lau Pareta de Tabakalera una exposición que recoge, por un lado, la obra audiovisual de la artista estadounidense, integrada por videos de las películas que realizó desde inicios de la década de los 80 hasta mediados de los 90. Por otro, una selección de sus publicaciones más recientes, textos críticos, ensayos y obras de ficción, títulos difíciles de clasificar con los que ganó cierto reconocimiento dentro del campo del arte, pero que en los últimos años ha logrado trascender este territorio, muchas veces hermético, y llegar a lectores de consumo literario, de mayor número y alcance.

En la muestra presentada en la sala de Tabakalera, sin embargo, destacan las piezas audiovisuales de la artista. Obras que apelan al lenguaje teatral y performático, que abordan constantemente la relación entre texto e imágenes, donde son frecuentes las referencias literarias y la intertextualidad, evidencia del diálogo que, durante su etapa como cineasta, le interesó sobremanera explorar. La disposición de las obras en la sala, además, refuerza el ánimo de la muestra: reivindicar su obra en film y video. Un vistazo en retrospectiva de su trabajo se dispone en nueve monitores ubicados uno al lado del otro, en un recorrido cronológico que se lee de izquierda a derecha, en donde obras en Super 8 y 16mm (en versiones transferidas a vídeo) se suman a obras en video de su última etapa como cineasta. Adicionalmente, dos proyecciones se contraponen en las paredes laterales de la sala, con una selección de sus obras por un lado, y una lectura de sus textos en otro, un conjunto polifónico que funciona como voz en *off* de la muestra entera.

‘Chris Kraus, películas antes y después’ propone realizar una revisión de su filmografía, que sigue siendo de actualidad a pesar del paso del tiempo, gracias al empleo de la performatividad, la yuxtaposición de capas de lenguaje, la mezcla de referencias, el recurso y la consideración de lo íntimo como materia literaria, y el proceso colectivo como puesta en marcha para la producción. Una reivindicación a su labor como cineasta, en medio de su creciente prestigio como novelista.




MONTSE CASTILLO



149 urteko historia etiketa berrian laburbilduta.

KELER DONOSTIA 1872

Donostia Zinemaldia Festival de San Sebastián Cerveza Oficial



Keler-ek kontsumo arduratsua aholkatzen du. 6º